

Ebazpena: R104/2023
Espedientea: E064/2022

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 15a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabakitzen dute:

ERABAKIA

Arabako Foru Aldundiak (AFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, zehazteko noren eskumenekoa den Gizarte Segurantzaren Antolamendu Kostuen Zuzendaritza Nagusiak (GSAKZ) Araban egoitza fiskala duten hartzaileei 2018-2020 aldian egindako PFEZagatiko atxikipenak ordainaraztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 64/2022 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2021eko abenduaren 2an, autonomia- edo toki-administrazioan eta Estatuko administrazio instituzionalean zerbitzuak eman zituzten Arabako egoiliarren klase pasiboen atxikipenak bidaltzeko eskatu zuen AFAk.

2021eko abenduaren 13an, AFAk Excel fitxategi bat bidali zuen hartzaileen zerrendarekin.

2.- 2022ko ekainaren 1ean, ZAEAk eskaera partzialki ukatu zuen, organismo autonomo edo enpresa-entitate publiko ez diren estatuko administrazio instituzionaleko enteetan zerbitzuak eman dituzten langileei dagokienez.

Zehazki, salbuetsita daude ZAEAko, Arabako Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Probintzia Ordezkaritzako, Indar Armatuetakoa Gizarte Institutuko, Meteorologiako Estatu Agentziako eta Gizarte Segurantzako Informatika Gerentziako langileak.

ZAEAk epea ematen du berraztertze-errekurtsoa edo errekurtso ekonomiko-administratiboa jartzeko.

3.- 2022ko ekainaren 30ean, idazki bidez, AFAk inhibitzeko eskatu zion ZAEARI, eta hark isilbidez berretsi zuen bere eskumena.

4.- 2022ko abuztuaren 3an, AFAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, eta 64/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikuluko horrek funtzio hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Ordainarazteko eskumena.

Estatuko Administrazioak (lurraldekoa) eta Estatuko Administrazio instituzionalak funtzionarioei eta lan- edo administrazio-erregimeneko enplegatuei ordaindutako atxikipenak ordainarazteko eskumena (aktiboak, pasiboak, alarguntasunekoak eta zurztasunekoak barne) Arbitraje Batzordearen ebazpen hauen bidez ebatzi da: 15/2016 Ebazpena (ESPETXE LANARI ETA ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARI BURUZKO 24/2014 gatazkan emana), 4/2017 Ebazpena [MUFACERi buruzko 10/2015 gatazkan emana, Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko Epaiak berretsia (ECLI:ES:TS:2018:1398)], eta 137/2022 Ebazpena [ZAEARi buruzko 36/2018 gatazkan emana, Auzitegi Gorenaren 2023ko urriaren 24ko Epaiak berretsia (ECLI:ES:TS:2023:1313)]. Osorik erreproduzitzen ditugu, eta, horiei esker, Estatuko Administrazio instituzionaleko enplegatuen atxikipen aktibo zein pasiboen ordainarazpen-eskumenaren lotunea hartzailearen bizilekua dela ondorioztatzen dugu.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea Arabako Foru Aldundiari dagokiola Estatuko Administrazio instituzionalean zerbitzuak (prestazio pasiboen kasuan) ematen edo eman dituzten Arabako egoiliarrei 2018-2020 aldian egindako lan pertsonalagatik atxikipenak ordainarazteko eskumena.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta Gizarte Segurantzaren Antolamendu Kostuen Zuzendaritza Nagusiari.